



28 URTE BERANDUAGO... HERRI KIROL FESTA

Igande honetan aizkora proba antolatu dute Hernialden, duela 28 urte eginiko festa gogoratzeko 4

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2008-11-20**

VIURTEA 1.564.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Zaborrak birziklatu eta murrizteko kanpaina abiarazi dute eskualdean

TOLOSALDEA 'Eman beste aukera bat hondakinei' Tolosaldeko Mankomunitateak bultzatutako kanpaina da

AURKEZPENA Atzo azaldu zuten, «parte-hartzea bilatzen du kanpainak»; eskuliburuak banatuko dituzte 2



Atzoko aurkezpenean, Villabona, Anoeta, Asteasu, Tolosa, Andoain, Alegia, Ikaztegieta, Amezketa eta Albizturko Udal ordezkariak izan ziren. ESTI EZEIZA

'Idazleak eskoletan' ekimenarekin, Ormazabali elkarrizketa

LEITZA Amazabal institutuko DBHko ikasleek idazleari elkarrizketa egi diote 7



Graffitariek eginiko lana Gaztetxean.

Garaipenak Mundu Kopako lehen partidetan, Kuban 5

Gure Kaiolaren Babarrunaren Lehiaketa, etzi 3

II. Piparmin Eguna antolatu du Gazte Asanbladak

IBARRA Ekitaldi ugari egingo dituzte etzi Gaztetxean 6



Sarrera parea

zozketan, deitu eta eskuratu!



**BRUESA GBC
CAI Zaragoza**

IGANDEA

AZAROAK 23-12:30

ILLUNBE



Sarrera parea

zozketan,
deitu eta eskuratu!

**BABARRUN
JATEA**

Azaroak 23 ° Igandea
Gure-Kaiola elkartean



HITZAren harpidedunentzat abantailak

Parte hartzeko, deitu goizez telefono zenbaki honetara: 943 65 56 95

Hondakinak birziklatu eta murrizteko kanpaina jarri dute abian eskualdean

Ingurumena » Tolosaldeko Mankomunitateak atzo aurkeztu zuen ekimena; etxez etxe, honen inguruko eskuliburuak banatuko dira.

ESTI EZEIZA

Tolosaldeko Mankomunitateak *Eman beste aukera bat hondakin*ei kanpaina jarri du abian. Ekimen honen helburua da «hondakinak murrizteak eta birziklatzeak duen garrantzia ohartaraztea herritar-
rak».

Atzo aurkeztu zuen egitasmoa Mankomunitateko Batzorde Iraunkorrak. Bertan izan ziren, Andoain, Albiztur, Alegia, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ikaztegieta, Villabona eta Tolosako Udal ordezkariak. Olatz Peon, Tolosaldeko Mankomunitateko Lehendakariak azaldu zuen atzo, «martxan jarritako kanpainarekin, herritarren parte-hartzea bilatzen dugu». Honetarako, petalobaten itxurako euskarri erakargarri eta erabilterraz bat argitaratu dute. «Hau sukaldetan gorde ahal izateko, eta zantzala bat sortzean erabiltzeko» agertu zuen Peonek.

Petaloguztatu osatutako euskarri horiek etxez etxe banatuko dira.



Tolosaldeko Mankomunitateko Batzorde Iraunkorreko kideak, atzo. E. EZEIZA

Bertan, etxeko hondakinak murrizteko argibideak eta kontsumo ekologikoa bultzatzeko gomendioak topa daitezke. Herri bakoitzerako ezberdinak izango direla ere jakinarazi dute. Hain zuzen, bakoitzaren bilketa ordutegira, eta berezitasunetara egokituta daudelarik.

Honenbestez, eskuliburuak, edukiontzien bidez jasotzen ez diren hondakinak, hala nola, altzari eta traste zaharren, sukaldako olioaren eta etxeko hondakin arriskutsuen bilketa egunak adierazten dira udalerriz udalerriz.

Hondakinaren inguruko datuak

Sortutako hondakinak dagokionean, bereziketa prozesua etxeetan hasten da. Funtsezkoa da hondakinak ondo bereiztea, behar bezala birziklatzeko.

Egun, sortutako hondakinak laurdena birziklatze programetara bideratzen da. Batzate beste, herri bakoitzak 115 kilo hondakin berreskuratzen ditu urtero. Hori-etatik 48 papera eta kartoiak dira, 30, beira, 10, ontziak, 3, arropa eta gainerakoa ordenagailuak, olioak, zura, inausketako hondakinak...

Datuak aztertu ostean, Mankomunitateko ondorioztatu dute,

edukiontzian horian jasotzen diren plastikozko ontziak, metalezko ontziak eta brick motakoek arretea berezia eskatzen dutela oraindik.

Merkatarientzat kartoiak biltzeko zerbitzu berezia

Eskualdeko herri handienetako merkatariei zuzenduta, kartoiak biltzeko zerbitzu berezi bat jarri dute martxan. Hala, kartoiaren birziklepena bultzatu nahi dute. Baita kaleak txukun mantendu ere. Hori dela eta, bilketa zerbitzua

Edukiontzien bidez jasotzen ez diren hondakinak bilketa egunak azaltzen dira eskuliburuak

leku gehiagotan emango dute eta kartoiak bilgarriak uzteko ordutegia murriztuko dute.

Andoain, Ibarra, Tolosa, Villabona eta Zizurkilgo saltokiek astelehenera larunbatera, 19:30etik 20:00etara utzi beharko dute kartoiak. Alegia, Anoeta eta Irurakoek berri, asteazkenetan eta larunbateran, ordutegi berean, utzi ahal izango dute. Hau, edukiontzian ondoan utzi behar dela ohartarazi dute Mankomunitateko, ondo tolestuta eta plastikorik gabe.

'Euskal herri euskalduna' hitzaldia, gaur iluntzean

Tolosa » Inaxio Agirre filologo ezaguna izango da hizlari gaur 20:00etan, udaletxeko Batzar Aretoan.

ERREDAKZIOA

Euskal Herriaren irrintzia auteterminazioa egitasmoaren baitan, Inaxio Agirre euskal filologoak hitzaldia eskainiko du gaur, 20:00etan. Ezker abertzaleak antolatutako saioa Kultur Etxean izango da.

Agirre, Tolosaldea Berreuskalduntzeko Elkartearen motorra izan zen hasieratik. Bestetik, soziolinguistika du zaletasunik handiena, eta hizkuntza egoera asko aztertu ditu. Baita euskararen nor-



N. LATABARU

malizazioaren inguruan artikulua asko idatzi ere. Honenbestez, *Euskal Herri euskalduna* izenburupean mintzatuko da gaur.

«Asuncion klinikako aparkalekua doan»

Tolosa » Helburu hau lortzeko asmoz, elkarretaratzeak egiten ari dira langileak; ez daude zuzendaritzarekin ados.

ERREDAKZIOA

Asuncion Klinikaren ondoan eraikitzen ari diren aparkalekuarekin «negozioa egin nahi» dutela salatzaren jarraitzen dute bertako langileek. Hala, ELA eta LAB Asuncion Klinikako atal sindikalak deituta, elkarretaratzea egin zuten atzo.

Langileen ordezkariak luzatutako informazioaren arabera, «mobilizazioak hasi ondoren zenbat kobratuko ziguten langileoi, esan ziguten, 0,01 euro minutuko». Honen arabera, 7 orduko la-



Atzoko elkarretaratzea. HITZA

negunean, 4,2 euro suposatzen du. Bestela, 36 euro ordaindu ditzakete hila batean, «tarifa bigun batean». Alderaketa bat egin ez gero, Tolosan aparkatzeko herritarrek 40 eurotan erosi dezakete txartela.

Zuzendaritzaren asmoa onartzen ez dutenez langile hauek, asteazkeneko elkarretaratzeak egiten jarraituko dutela adierazi dute, «aparkalekua doan nahi» baitute.

L Laburrak

Inauterietaz hitz egiteko bilera, gaur arratsaldean

TOLOSA » Gaur, 19:00etan Inauterietaz eta Kolektorearen obrak hitz egiteko bigarren bilera egingo du Festa Batzordeak. Batzarra Kultur Etxeko areto nagusian da.

'Tolosa kantari'-ko entseguak asteazkenean

TOLOSA » Ekainean hasitako ekimenari jarraipena emanez, eta geroztik hilero egin den moduan, azaroaren azken larunbatean, 29an, alegia, *Tolosa kantari* izango da Alde Zaharreko kaleetan, eguerdiko 12:00etatik aurrera, Tontokalen elkartuta, euskaraz kantatzea atsegin duten guztiei irekita. Bestalde, entsegu bat antolatuta dute datorren asteazkenean, azaroaren 26rako. Hau Kultur Etxean izango da, 1. solairuan, 20:00etan.

'Tiro en la nuca' filma ikusgai gaur, Leidorren

TOLOSA » Gaur, Zine-forumak antolatuta, Jaime Rosalesen *Tiro en la cabeza* filma izango da ikusgai Leidorren; lehen saioa 19:15ean, eta bigarrena, 21:45ean.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldea bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

Beti Nai
jattetxea

Garaian
garaiko janariak
Arraiketan berezia



© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA



Pasa den urtean, 650 lagun inguru bildu ziren Ferialekuan, Gure Kaiolak antolatutako herri bazkarian. HITZA

Eltze artean onenaren bila

Gastronomia » Etzi izango da Gure Kaiola elkarteak antolatutako XXII. Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa.

INIGO TERRADILLOS

Hainbat arlo desberdinetatik da ezaguna eskualdea gure mugetatik at, eta ziurrenik, gastronomia da horietan pisu handiena duena. Gastronomiari dagokionez, asko dira aipatu ditzakegun produktuak, baina ezagunenetakoa Tolosako Babarruna da. Horren adierazle da atzo hasi zen Babarrunaren Astea. Igandera arte luzatuko da hau, eta era askotariko ekital-

diak izango dira guztietan babarruna osagai nagusia izango delarik.

Asteburu betea

Etzi eta igandea izango dira egun handienak egitarauari dagokionez. Etzi azoka berezia izango da, eta honekin batera, Babarrunaren Ekoizleen Lehiaketa eta lakari baten enkantea ere egingo da. Ez da lehiaketa bakarra izango, ordea;

izan ere, txapela nork ondoen jantzi lehiaketa ere izango da etzi, eta bihar arratsaldean egingo duten babarrunaren pintxo lehiaketa ere hor dago.

Baina lehiaketak aipatzean tradizio handia duen Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoak aipamen berezia merezi du. Gure kaiola elkarteak antolatzen duen ekimen honen 22. edizioa izango da aurtengoa. Hogei sukaldari inguruk hartu ohi dute parte, eta euren lana babarrun plater goxoena prestatzea izaten da. Horretarako ez dute edozein babarrun izango, aurreko egunean, hau da, etziko Babarrunaren Ekoizleen

Lehiaketan irabazle izan dena erabiliko baitute.

Goizean goiz hasiko dira platerak prestatzen, eta behin horiek amaituta, Julian erretegiko Matias Gorrotxategi, Nicolas erretegiko Pedro Ruiz, Gure Kaiolako Jose Luis Pecina, Babarrun Ekoizleen Elkarteak lehendakaria Mari Karmen Iradi eta Sausta eta Herrialde jabetxeetako sukaldariak izango dira epaituko dituztenak. Pasa den urteko lehiaketari dagokionez, irabazleak Albizturko Juan Mari eta Karmele Aramendi anai-arrebak (Gasteiz jabetxea) izan ziren.

Ondoren, herri bazkaria

XXII. Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoaren ostean herri bazkaria egingo dute. Aurten lekuz aldatu dute, bai lehiaketa, bai eta bazkaria ere, biak Zerkasian izango baitira. Karla Mujika Gure Kaiolako lehendakariak azaldu bezala, «leku egokiagoa iruditu zaigu Zerkasian bazkaria egingo, herriaren erdialdean dagoelako, leku txukunagoa delako, ero-

» DATUAK

Egitaraua

- **08:30.** XXII. Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa, Zerkasian.
- **13:00.** Sari banaketa, Zerkasian.
- **14:30.** Herri bazkaria, Zerkasian.

Bazkariko menua

- Baserriko galantina trufarekin, pate tarta, untxi eta onttoen trina.
- Tolosako Babarrunak, aza, odolki, urdai eta lbarako piparrek.
- Postrea: Eceiza Etxea.
- Ura: Insalus.
- Ardoa: ardo ondu beltza *Pierola* eta ardo gorri berezia *Orvalaiz*.
- Ogia: Opil.
- Kafea, likorea eta purua.

Izen-ematea

- **Prezioa.** 22 euro.
- **Txartelak.** Gure-Kayola elkartearen, 19:30etik 21:00etara, eta Zerkasian bertan, igandean, hilaren 23an, 10:00etatik aurrera. erosi ahal izango dira. Elkarteak telefonoa zenbakira (607 672 709) deituta ere egin ahaliko da.

soagoa... beraz aurten lekuz aldatu dugu». Izan ere, orain arte, Ferialekuak hartzen zuten ekimen hau. Lekua aldatu bada ere, «betiko giro ona» izango dela aurten ere diote, eta alaitzeko beti bezala, txaranga-

Aurten ere, 500 lagun inguru espero dituzte Gure Kayola elkarteak etziko herri bazkarian

ren doinuak izango dira. Jende kopuruari dagokionez, 500 lagun inguru espero dituzte igandeko herri bazkarian.

Babarrunari bultzada

«Babarrunak eskualdean duen garrantziak arduratuta», ekoizleen gura lantzeko gogoak piztu nahian hasi ziren lehiaketa gastronomikoa antolatzen Gure Kaiola elkarteak kideak 1987an. Lehen bi urteetan Beotibar pilotalekuan egin zuten, eta ondorengoetan Ferialekuan izan da. Xume hasi zen, eta pixkanaka indarra hartzen joan da, bai lehiaketa, bai eta herri bazkaria ere.



Babarrunari buruz hizketan

GIZARTEA » Atzo ekin zion Babarrunaren Asteak, babarrunari buruzko mahai-inguruarekin, gaian adituak direnek parte hartu zutelarik. Gaur, bestalde, 17:00etatik aurrera, Zerkasian Babarrun Pintxoaren Lehiaketa izango da. Bertan parte hartzera ostalaritzako kide guztiak gonbidatu dituzte. Pintxoek Tolosako baba-

rruna izango dute osagai nagusi, eta aurkezpena, itxura eta zaporea hartuko du epaimahaia kontuan. Nicolas erretegiko Pedro Ruiz, Amasako Iturri Goxo jabetxeke Jokin Zabala eta Berrobiko Iriarte jabetxeke Felix Belaunzarán sukaldariak, eta Tolosako Babarrunaren Kofradiako Jose Carcellerrek osatuko dute. N.L.

Enpresa bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzu profesionala eskaintzen du Jarduna.

Zerbitzu guztiak **euskaraz** betetzeari bermatzen dizugu

Zure enpresarentzat administrazio zerbitzu profesionala eta euskalduna nahi baduzu, jarri harremanetan gurekin

- KONTABILITATEA
- ZERGAK
- NOMINAK
- KOBRANTZAK

Jarduna

administrazio zerbitzuak

Martín Ugalde Kultur Parkea
ANDOAIN
943-30 40 30
administrazioa@jarduna.net

28 urte geroago errepikatzeko modukoa

Hernialde » Lau herrien arteko herri kirolen festa gogoratzeko, igande honetan aizkora proba antolatu dute.

IMANOL GARCIA

Orain 28 urte herri kirolen festa antolatu zuten Anoeta, Alkiza, Iru-
ra eta Hernialdeko zenbait herri-
tarrek. Hiru saio egin zituzten or-
duan, herriko festekin bat eginez:
Hernialden, Anoetan eta Iruran.
Orduan parte hartu zuten batzuk
festa hura gogoratu nahi dute eta
aizkora saioa egingo dute igande
honetan Hernialden.

Aizkora eta sokatiran lehiatu
ziren. Sokatiran lau herrietakoek
parte hartu zuten. Aizkora, Alki-
zatik ez zen inorizan eta Anoetatik
Joxe Migel Lizartzak eta Joakin
Garmendiak, Hernialdetik Adrian
Tolosak eta Joxe Artolak eta Irura-
tik Inazio Ikutzak parte hartu zu-



Orain 28 urte Adrian Tolosa (ezkerrean) eta Joxe Artola (erdian) sariak jasotzen; eskubiko argazkian, egun, Adrian Tolosa eta Joakin Garmendia. HITZA

ten. Giro polita sortu zen, festa na-
gusi zela. Baina pixkanaka, festa
izatek txapelketa bihurtzen hasi
zen eta giroa hoztu zen eta utzi
egin zioten saioak antolatzeari.

Festa giro hura berreskuratu
nahi dute berriro eta igande hone-
tan aizkorako proba egingo dute.

Alde batetik Joakin Garmendia eta
Adrian Tolosa ariko dira, orain 28
urte ere plazan izan zirenak, eta
bestetik Alberto eta Aitor Roteta
alkizarrak. 13:00etan hasiko da
saioa eta bi lan burutu beharko di-
tuzte: lau aldiz ebakitzea enbor bat
txanda librean eta zeinek ebaki en-

bor bat kolpe gutxiagotan. Ondo-
ren, Herri Ostatuan bazkaria anto-
latu dute. Txartelak bertan daude
salgai.

Bazkal ondorenean Angel Mari
Peñagarikano eta Iker Zubeldia
bertsolariak ariko dira. Peñagari-
kano anoetarrak, hain justu, orain

28 urteko saio hartan egin zuen
bere lehenengo plaza. Migel Zaba-
la anoetarrarekin aritu zen or-
duan. Peñagarikanoentzat ere
une berezia izango da eta ziurrenik
bertso bat baino gehiago botako
dela bere lehenengo plaza gogora-
tuz.

'1, 2, 3... Iñaxito' obra, bihar Kultur Etxean

ERREDAKZIOA

Haurrei zuzendutako antzezlan-
a ikusteko aukera izango dute bihar
Alkizan. 1, 2, 3... *Iñaxito* obra bihar
emango du Trikuharri taldeak,
17:30ean, Kultur Etxean. Inaxito
jolasean ariko da, zenbakiekin ez-
kutaketan.

Bertso-antzerki «bizi eta atsegi-
na» bezala aurkeztu du Trikuharri
taldeak emanaldia, haurren irudi-
mena eta sormen alantzeahelburu
duena. Buruari eraginez zenba-
kiak bilatu eta aurkitu behar du
ikusle goak, Iñaxitori laguntza
emanaz.



Iñaxito da antzezlaneko protagonista. I. GARCIA



Greziako kontuak entzungai

ADUNA » Kultur Astearen baitan, herenegun arratsaldean Juan Kruz Ige-
rabidek *Grezia zaharreko istorioak* emanaldia egin zuen kultur aretoan.
Bere alaba Oihaneekin lagundu behar zion kontaketa girotzen,
baina ezin izan zuen eta bere orde. Maite Oiartzun aritu zen pianoan.
Kultur aretoa beteta egon zen istorio-emanaldia jarraituz. Gaurkorako,
20:00etan, Euskal Curriculumari buruzko hitzaldia izango da. I. GARCIA

Laburrak

Krisi ekonomikoaren aurka eta langileen alde, hitzaldia

TOLOSA » Euskal Herria Sozialista
aldizkariak antolatuta, hitzaldia
izango da krisi ekonomikoaren
aurka eta langileen alde. Solasaldia
bihar izango da, 19:30ean, Otsabi
gazte lokalean (Denak tabernaren
ondoa). Antolatzailerek diotenez,
«langileen batasuna bultzatzea,
langileak eta herritarrak gertatzen
ari denaz informatzea» da, beste-
ak beste, duten helburua.

'Ikaztegieta Kantuz' emanaldia herriko ostatuan

IKAZTEGIETA » Udazken kulturala-
ren baitan, *Ikaztegieta Kantuz*
emanaldia izango da bihar,
21:30ean, herriko ostatuan. Clara
Urteaga ikaztegieta, Irati So-
rondo eta Garazi Eziguren tolosa-
rrak ariko dira kantuan. Etzi, beste
ekitaldi bat antolatu dute.
19:00etan, gaztaina eta talo-jatea
egingo dute.



Jantzi dotore, jantzi hitza.



Salmenta puntuak: Tolosako OSKI arropa denda
Leitzako TORREA tabernan eta HITZAren Tolosako eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...

hitza
TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

Garaipenak Munduko Kopako lehen partidetan

Pilota » Eskualdeko ordezkariak dagoen bi modalitateetan, paleta goma nesketan eta xarean, kubatarrei irabazi diete.

ERREDAKZIOA

Trinketeko Euskal Pilotako Munduko Kopa abian jarri da Kuban eta eskualdeko ordezkariak dau-den modalitateak ezin hobeto hasi dira. Bai paleta goma nesketan, baita xarean ere garaipenak lortu dituzte Espainiako selekzioarekin. Paleta goman, gainera, Maider Mendizabal anoetarrak (Su-Berri elkarteak) eta Nagore Arozena lizartzarrak (Su-Berri) jokatu zuten partida.

Su-Berriko neskek astelehenean jokatu zuten lehenengo partida kubatarren aurka. Ligaxkakolehenengo partida horretarako Alex Pagola hautatzaileak aurrean jokatzeke Maider Mendizabal eta atzerako Nagore Arozena aukeratu zituen. Txapelketako lehenengo partida izanik, hasiera nahiko urduritsua izan zen bi taldeetako pilotarientzat baina pixkanaka Mendizabalek eta Arozenak beraien maila erakutsi zuten eta oso erraz gailendu ziren etxekoan aurka 30-10 emaitzarekin, nahiz eta bertaratutako ikuslego ugaria euren aurka izan une oro.

Hurrengo, aurkari gogorra

Emaitza horrekin txapelketa ezin hobeto hasi dute neskek. Hurrengo partida bart jokatu zuten (01:00ak zirenean Euskal Herrian) eta askoz ere aurkari gogorragoak izan zituzte aurrean, Frantziako selekzioa, hain zuzen ere. Horiek dira Munduko Kopa honetan izango dituzten aurkari gogorrenak. Partida horretarako hautatzaileak Maider Mendizabal eta Nagore Arozena aukeratu ditu berriro ere.

Ligaxkako azken partida, okerrik ezean, Itsaso Urkizu berastegiarrak (Su-Berri elkarteak) eta Maite Ruiz de Larramendi nafarrak (Oberena elkarteak) jokatuko dute Mexikoren aurka. Lehiaketa sistemari so eginez, ligaxkako hiru partida jokatzen dira eta bi partida irabaztearekin finalerako txartela segurua da. Dagoeneko partida bat irabazi dute etabigarrengoarekin zer gertatu den ikusi behar da.

Xarean ere kubatarrei irabazi

Xare modalitateko lehen jardundian hautatzaileak ez zituen Andoni Lizaso eta David Vinuesa irurarrak jarri kantxan, baina garaipenak talde guztia erantzen dira. Dufur eta Larrea nafarrek jokatu zuten eta kubatarren aurka 40-31 irabazi zuten.

Nafarrek partida bikaina jokatu zuten eta beti jokoaren eta emaitzaren kontrola eraman zuten eta horrek garaipena eskuratzea ekarri zien. Horrela, gertuago dute finalerako txartela lortzea. Bestalde, Frantziako xareko selekzioak Argentinari nagusitasun osoz irabazi zion eta aukera asko dituzte ere finalera igarotzeko.

Euskal Pilotako Munduko Kopa

trinketean Habanako Raul Diaz Arguelles kirol instalazioetan jokatzen da. Denera sei selekzio ari diraparte hartzen Munduko Kopa horretan: Kuba, Mexiko, Uruguay, Argentina, Frantzia eta Espainia. Txapelketa trinketeko jokamolde guztietan jokatzen da: gomazko paleta neska eta mutilak, larruzko paleta, eskuz banaka eta binaka eta xarea.



Eszerrean, Arozena eta Mendizabal, lehenengo partidako aurkezpenean. HITZA

TB Digitala

Futbolik onena egunean 24 orduan (eta epaileak erabakitako luzapenean)

Bizi ezazu futbol guztia eta askoz gehiago TB Digital onenean | hilean **14,1 €** bakarrik ordainduta

Liga, Kopa, UEFA, Premier-a, Calcio liga... Ilus desaketsura baino futbol gehiago TB Digitalen. Kormatatu **1717** zenbakira deuta edo Euskaltelen saltokietan.

10!

1717 zenbakira deuta edo Euskaltelen saltokietan.

TB Digitala zure abarrazko langa... (small text about service conditions)



Grafitilari talde batek txukundu berri du Ibarako Gaztetxearen kanpoaldea; barruan ere egin dute grafitirik. R. CALVO

Gaztetxea, herriko «piparmin» belaunaldi desberdinen topaleku

Ibarra » Gaztetxearen 15. urteurrena behar bezala ospatzeko II. Piparmin Eguna antolatu du Gazte Asanbladak larunbaterako.

REBEKA CALVO

Errespetua, komunikazioa, elkar-kidetzatza... lantzeko tokia izan nahi du Ibarako Gaztetxeak. 15 urte luze daramatza horretan, gora beherekin, aldaketekin... baina helburu jakin batekin beti: «Herriko gazteen elkargunea izatea».

Talde-lana bultzatuz

«Taldea landu nahi dugu, gaur eguneko individualismorako joera baztertu eta guztien arteko dinamika bat sortu nahi dugu», dio Gazte Asanbladako kideetako batek. Orain 15 urte, Gaztetxea sortu zenean ere, horixe zen euren nahia, nahiz eta «urteak pasata helburuak eta zereginak ere eraldatu egiten diren, gizartea berabazala», adierazi du.

Gaztetxeak «zerbait egin nahi duenari, horri heltzeko behar dituen eta gure eskura dauden, tresnak» emateko tokia da. Eraberean, herriko belaunaldi desberdinetako gazteak biltzeko gunea ere izan



I. Piparmin Egunean belaunaldi desberdinetako gazteak bildu ziren. I.G.A.

nahi du eta horregatik urte guztian zehar kontzertu, hitzaldi eta emanaldi desberdinak eskaini ohi ditu, gaiak ere askotarikoak direlarik; kirola, gizarite-gaiak, komunikazioa, musika, antzerkia... Hauetaz guztietaz gain, gainera, euren lana urtero Gazte Festetan eta Urte Zaharreko Festan gorpuzten da.

Gazte Festak, zehazki, arrakasta gehien izaten duen ekintza izaten da, baina urteak joan ahala «masifikatu» egin da, eta ondorioz, gaur egun jada «ez da herrikoentzako festa bakarrik, gu, normalean, lanean izaten gara eta». Hori delatuen eta antolatu zuten orain urte eta erdi-edo I. Piparmin Eguna, «gure festa izateko». Lehen deialdiak arrakasta handia lortu zuen eta la-

runbatean izango da bigarrena, «Gaztetxearen ospakizuna, Ibarako gazteon festa handia», alegia.

Aurtengo Piparmin Egunerako, hortaz, egitarau zabala atondu dute, goizean hasi eta goizaldera arte luzatuko dena. Horiek horrela, 11.30ean egingo duten hamaiketakoarekin hasiko da festa, ondoren 12.00etan triki-poteoa izango da, gazte bazkaria 14:30ean eta ondoren gazte olinpiadak, 17:30ean. Bukatzeko 20:30ean barrikotea eta bokatak egongo dira plazan eta 22:30ean Kaotiko eta Montonsen kontzertuak. Abonak 25 euro balio du eta Atari tabernan daude salgai; antolatzaileek aurrez erostea eskatu dute.

Gutunak

Eskerrik asko

Aurr Dantza Taldea oso pozik dago Sua ikuskizunak iragan igandean (hilak 16) Tolosako Leidor Antzokian jaso zuen txalo zaparradarekin.

Ikus-entzuleei eskerrik asko esan nahi diegu, beren erantzunarengatik eta eman diguten berotasunarengatik.

Komunikabideei ere mila esker, herriko dantza talde bati eskaini diozuen espazioarengatik eta hainbeste jenderengana helaraztea ahalbidetu gaituzuelako.

Alurreko lagun taldeari ere esker mila, zuei esker ere posible izan baita Sua egitea. Eskerrik asko eman diguzuen laguntza guztiagatik, babesa, animoa eta beti hor

egoteagatik. Dantzari, animo. Lortu duzue Sua aurkeztea. Meritu handia duzue. Azterketak eta lezioak izan dituzue, ahalegin eta sakrifizio handia egin behar izan duzue, baina, hala ere, zuek hor egon zarete.

Aupa! Piztu dugun Sua ez dadin itzali. Eta, nola ez, Edu, Katixa, Cristina eta Ramoni mila esker. Eduri, bereziki. Esker mila egin duzuen lanagatik, zuen pazientziarengatik, eta profesionalki eta pertsonalki eman diguzuen babesarengatik.

Emanadia ikusi gabe gelditu direnek urtarrean izango dute Sua ikusteko aukera, Ibarra.

Eskerrik asko eta laster arte.

Eli Nosellas. (Alurr dantza taldearen izenean).



Txalo zaparrada itzela jaso zuten Alurrekoek Leidorren. NEKA

Udazkeneko Mus Txapelketa, bihar

Ibarra » Ibarako Bai Euskal Herriarik urtaroro egin ohi duen moduan Mus Txapelketa antolatu du; bihar izango da 22:00etan.

ERREDAKZIOA

Ibarako Bai Euskal Herriarik Udazkeneko Mus Txapelketa antolatu du. Hitzordua bihar izango da 22:00etan Deportiba elkartearen.

Mus Txapelketa hau, urtaroro antolatzen dutena, *EHNA egin eta erabili* kanpainaren barruan egin ohi dute. Elkarteko kideek esan-

dakoaren arabera, aurretik Sendi Ekintzan eta Xeplan izandako txapelketekin «oso gustura» geratu dira. Izan ere, aipatu aurreko bi txapelketan belaunaldi desberdinetako 16 bat bikote elkartu ziren «oso giro onean».

Parte hartu nahi duen bikote bakoitzak 15 euro ordaindu beharko ditu eta sariak hauek izango dira: bikote irabazleak arkumea eta bi ardo botila jasoko ditu, bigarrenak txuleta eta ardo botila bakarra eta hirugarrenak bi oilkaso eta bi sagardo botila.

Partaide guztiek, hala ere, sargado botila ere eskuratuko dute.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95

E Elkarrizketa

JOXANTONIO ORMAZABAL | Idazlea



HITZA

«Idaztea barruan dudan zerbait adierazi beharra litzateke»

Leitza » Amazabal institutuko ikasleek ondorengo elkarrizketa egin zioten Ormazabali, 'Idazleak eskoletan' ekimenaren baitan.

AMAZABAL-GO 1.DBHKO IKASLEAK

Euskara eta Literaturako eskola orduetan landu berri genuen *Kittano* liburua eta, ordu betez aritu itaundu genuen egilea, Joxantoni Ormazabal (Zegama, 1948). Liburu honen inguruko ez gain, egilearen bizitzaz eta zaletasunetaz ere xehetasun ugari jaso genituen. Are gehiago; idazleak, berak ekarritako poematxo, ipuin, bertso eta formula magikoarekin atondu zuen saioa. Hara hemen elkarrizketari hasiera eman zion formula magiko, sorgin giroko ipuinetan erabilgarria bada, gure artean ere primeran txertatu zena, ondoren hamaika galdera oparo etorri baitziren, gatz eta piper pittin batekin: *Inimindad, Petrikulidad, Zirkulu-mirkulu, Trikulu Trak, Ekomendario, Txantxikulete, Iup!*
Noiz eta non jaio zinen?

Egun Tolosan bizi banaiz ere, ez naiz tolosarra, zegamarra baizik, eta 1948ko uztailaren 21ean jaio nintzen, goizeko bederatzietan. Oraindik garia ikus zitezkeen landatua inguruko sorotan. Beraz, nekazal giroan jaio nintzen, Gipuzkoako barrualdean.

Orain 60 urte dituzu. Noiztik idazten duzu?

Idaztearen zaletasuna eskolatik datorrik. Eskola garaian irakasleak jada oharatu baitzidan honetarako balio nuela; idaztearen kontu ho-

netan erreparatu behar nuela. Ordu arte nik behin baino gehiagotan aldatu nuen afizioz edo ofizioz: etorkizunari begira hasierako elkarrizketak amarekin izan nituen eta handitan zer izango nintzen galderaren arrimura aita ala ama aukeratu behar banuen, dudu-mudarik ez eta, aita esaten nuen; amak aitari bokadillo ona jartzen baitio. Ogitartekoa ahaztu eta halako batean pelukeroa izan nahi nuela okurrirru zitzaidan, pertsona ona baitzen herrikoa. 11 urterekin kontu hauetara bueltatu eta seminariora joan nintzen, apaiz izatekotan. Han 7 urte igaro nituen eta bide honetatik ez banuen jo ere, bertan jaso nuen heziketa oparua eta liburuarekin afizioa. Seminariotik ateratzean, nituen ikasketei jarriki, magistreritza egitea erabaki nuen. Ikasketak amaitzean lanerako bidean jarri nintzen eta hala, 21 urterekin, Zarautzeko ikastolan eta gero Beasaingoan, aritu nintzen irakasle lanetan. Orain, aldiz, enpresa munduan ari naiz eta idaztearena zaletasuna dut. Ez naiz idaztetik bizi.

Zein literatura mota idazten duzu?

Haur eta gazte literatura, 12-13 urtetik beharagoentzat, haur txikiarentzat. Eta idazten dudana laburra izan ohi da: atleta banintz karriera motzak egingo nituzke, 100

metrokoak. Iraupen luzeeko kontuetik ez dut pazientziarik.

Liburu asko idatzit dituzu. Gustukoena...

Lagunekin ere idatzit ditut. *Perlando Amezketarra* esaterako, ez da nirea; ezta *Mariaprexenta* ere. Bakarkako lanean 34 ditut. Gustukoena artean *Haur kantarien bir-lora*: 11 letra dira. Bertan kantuentzat letra ipini nuen, eta Zarautzen ikastolan lanean ari nintzenekoak dira. Bada beste bat, *Txanela* proiektuan agertu zena, olerki baretik ipuin bilakatua; itsu bati buruzkoa, Donostiako tren geltokian soinua jotzen zuen itsua gogoan. Orain idazten ari naizen liburuak ere harrapatu nau: barru-barrutik idatzia da. Oso arinki bada ere, aurreratzen dizuet primizia: neska bat bere aitarekin bizi da, ama koman dago. Bukaera ere badaukit eta kasu honetan bukaerak baldintzatu dit kontaktaren haria.

'Kittano' liburuan aldiz amaiera irekia da. Amaierak ez zaitu baldintzatu kontaktetan. Hau honela, nondik hasi zinen eta ideiak nondik jaso zenituen?

Istorio honetan %98a asmatua da. Kittano bera ez da erreala. Alabaina, bada pertsonaia bat erreala dena: Anakleto, Kittanoren aita. Bizitza errealean bera ere ijitoa da. Handik eta hemendik barruan gordeta ditudan irudi batzuk ere tartekatzen dira; hala nola, Zegamako arrandegia dut begi aurrean, istorio honetan tokia hartu duena; Tolosako trenbideko atzealdean dauden txabolak ere begibidean ditut eta hortik Kittanoren txabola.

Eta gaztain-saltzailearena?

Oso umetatik barruan sartuta dudana figura da. 15 urte nituela ikusi nuen Donostian gaztain-saltzailea, bere etxetxoan sartuta, gaztain usainaren epeltasunean. Ziurrenik udazkena zen. Gero Tolosako Justizia Plazan ere aurkitu izan dut gaztain-saltzailearik, bidoia eta guzti. Irudi aproposa iruditu zitzaidan Kittanorentzat.

Kittano izena dela eta, hitzekin eta hizkuntzarekin jolasteko duzun joera erakutsi nahi diguzu?

Egia da gustuko dudala jostaketa horretan aritzea. Edonola ere, kasu honetan hitz hori beste nonbaiten entzuna nuen jada: Bilbon izan zen, bi bertsolariren arteko elkarrizketa entzuteko aukera izan nuen eta, halako batean, batak besteari Kittano deitu zion. Azaldu zidan, Markinako euskara zen eta ijito adierazi nahi zuten, *gitano* hitzaren oso antzeko. Hitz hau nire koadernoan jaso nuen, izan ere, baditut honelako eta bestelako bitxikeriekin osatutako 5 koaderno. Beharrezkoa dudanean bertara jotzen dut eta behin aitzakia izanik, Kittanoren kasuan gainerantzekoa *sobre la marcha* osatu zen.

Txokotxiki non aditu zenuen?

Ni ez nintzen jabetu hasiera batean, baina Patxi Zabaletak badu olerki bat *Txokotxiki txukuna* izenburukoa. Nire ganbaran, subkzientean geratuko zen grabatuta, nonbait, eta aukera ikustean tartea bilatu zuen: Kittanoren txabolarentzat, txikia izaki, izen aproposa iruditu zitzaidan.

Zuk asmatuak dira...

Zirkuaren izena: Irimirri; Goitigorabeitia abizena... Hitzekin eta soinuarekin jolastan dut. Eta askotan naturatik ere jaso daitezke honelakoak. Behin, Donostian nire lanean ari nintzela, kanpoan txori baten kantua entzutu nuen eta nire koadernoan jaso nuen berak abes-tutakoa: «Tirri tiu, tirri, tiu ti tut, ti tut, ti tut tttirrut, tttirrut, tttirrut ttit, ttit, ttit tiu ti, tiu ti, tiu ti... ..».

Zer gehiago duzu zure koadernoetan?

Koaderno hauetan jasoko ditut bestelako bitxikeriak: palindromoak adibidez: irudimena eta adimena freskatzeko ariketa proposa. Palindromo errazenen gurean: *ama; arra...* Luzerik ere bada, durangotar batek osatua: *Nik enara neraman amaren arane-nara.*

Hizkuntzarekin jolasteaz gain, idaztean zein helbururekin idazten duzu?

Ez dut helburu handirik. Gustuko dut idaztea; obsesioa esango nuke: Barruan dudan zerbait adierazi beharra litzateke.

Idazle lanetan, zein izan dira zure mementorik gozoenak? Zeintzuk gazienak?

Ez ditut hain gustuko liburuen aurkezpenak egitea, irratira joan beharra eta halako kontuak. Hauexek ditut desabantailak. Bada abantaila ugari: mementu gozoenak, honelako hizkaldiditxoak, eskoletan jaso izan dudana harrera. Honelakoetan idazten jarraitzeko gogo bixi-bixi mantentzen da. Nik handitan bi gauza izan nahiko nuke: goizetan jostailu-saltzaile eta arratsaldetan idazle. Eta bukatzeko gogoratu idaztea kreaiziona lana dela, sormenaren eskutik inbentzio txikia; eta honek niri satisfazioa dakarrik: *Inimindad, Petrikulidad, Zirkulu-mirkulu, Trikulu Trak, Ekomendario, Txantxikulete, Iup!*



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Hitzaldiak

■ **Tolosa.** Inaxio Agirrek *Euskal Herri euskalduna* hitzaldia emango du udal batzar aretoan 20:00etan.

Deialdiak

■ **Alegia.** Bertso-poteoa 19:30ean Unai Muñio eta Iñaki Gurrutxaga bertsolariekin eta Eider Zubillaga eta Maider Zabala trikitilariarekin; 21:00etan bertso-afaria Intxurre elkartearen.

■ **Altzo.** Idoia Sanchezen ipuin kontaketa saioa liburutegian 17:30ean.

■ **Tolosa.** Tolosako babarrunaren pintxo lehiaketa 17:00etan Zerkausian. Ostalaritzako edozein etxek har dezake parte.

■ **Tolosa.** Milagrosaren bederatzizurrrena lurreamendi Egoitzako kaperan, 8:00etan astegunetan, 9:00etan jaiegunetan eta arratsaldeetan, 16:00etan. Mezaren aurretik errosarioa errezatuko dute.

■ **Tolosa.** Babarrun Astearen baitan, urtero bezala, herri bazkaria izango da hilaren 23an Zerkausian, Gure Kaiola elkarteak antolatuta. Bazkarirako txartelak elkartearen bertan erosi daitezke jada, 22 eurotan, 19:30etik 21:00etara.

■ **Tolosa.** Euskararen eguna dela eta, Kontseiluek, abenduaren

13an, BECen antolatatu duen ekitaldira autobusak antolatatu ditu Galtzaundi Euskara Taldeak, 15:30ean aterata tren geltokitik. Izen-ematea, Galtzaundiko egoitzan 11 eurotan (bazkideek, 8 euro).

Kultur asteak

■ **Aduna.** 20:00etan hitzaldia Euskal Curriculumari buruz. Euskal Herriak Bere Eskola-ko (HEBE) kide batek emango du Kultur Aretoan.

■ **Ibarra.** *Sahara no se vende* filmaren emanaldia zuzendarien, Joaquin Calderonen eta Luis Arellanoren, aurkezpenaren laguntzarekin Benito Izagurre kultur etxean 19:00etan.

Zinema

■ **Tolosa.** *Tiro en la cabeza* filma Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.

■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunik.



Titirijairako sarrerak salgai

TOLOSA ● Titirijairako txanda ere heltzear dago Tolosara. Hain zuzen ere, hilaren 29an ekingo diete hariak astintzeari. Ordurako sarrerak eskuratu nahi dutenek aukera dute Tolosako Ekinbide Etxean (TEEn), bertan baitaude salgai. Jaialdiak irauten duen artean, berriz, Leidorreko leihatilan izango dira salgai 17:00etatik 20:00etara. Prezioak berriz 3 euro haurrentzat eta 7 euro helduentzat izango da. Abonoak ere jarri dituzte salgai, 5 saioentzat baliagarri izango direna; helduentzat 25 euro izango dira eta haurrentzat, berriz, 12 euro. I. TERRADILLOS

PURRtx, PORRtx
eta MARIHOTTS

DVD berria
etxeko txikiak
jolasteko

PANPINAK



DVDa
(posterra opari)
18€



Panpina bakoitza
(txapa opari)

20€

Egin eskaria amaitsu baino lehen
902-82 02 01 edo harpidetza@hitza.info
adierazi harpidedun kodea

hitza info

aek
16. korrika
Tolosa - Asteasu 16
martxoaren 20tik apirilaren 16ra

ongi etorri

euskaraz bizi nahi dugunon herrira

izan zaitez 16. korrika laguntzailea!